



EIBARKO UDALAREN ARAUDIA OHOREAK ETA GORAIPAMENAK EMATEKO

1. artikulua

Udal honek, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 189. eta 190. artikuluek ematen dioten ahalmenari helduz, eta testu arautzaile beraren 191. artikuluan agindutakoa betez, ohoreak eta goraipamenak emateari buruzko guztia arautzen du, araudi honen bidez.

Helburua da zehaztea Eibarko Udalak zer ohore eta goraipamen eman ditzakeen kultur, zientzia, arte, kirol, ekonomia, lanbide edo gizarte arloetan merezimendu bereziak, aparteko zerbitzuak, balio handiko lanak eta bikaintasuna saritzeko, edo Eibarko hiriarri egindako ekarpen bereziak saritzeko.

2. artikulua

Udalak, kasuan kasuko merezimenduak kontuan hartuta, ohore eta goraipamen hauek eman ahal izango ditu:

- Tituluak:
 - Eibarko Seme edo Alaba Kuttun, dagokion diplomarekin.
 - Eibarko Adopziozko Seme edo Alaba, dagokion diplomarekin.
- Goraipamenak:
 - Txopitea eta Pakea.
 - Eibarko Armarría.
 - Grabadore Bola.

3. artikulua

3.1. Eibarko Seme edo Alaba Kuttunaren titulua jaso ahal izango dute Eibarren jaio direnek edo bizitzaren zati bat bertan eman dutenek, jatorria eta unean uneko bizilekua edozein izanik ere, beren burua eibartartzat dutenek, eta beren ezaugarri pertsonal edo merezimendu nabarmenengatik eta, bereziki, Eibarren



onurarako, hobekuntzarako edo ohorerako egindako zerbitzuengatik ospe eta begirune handia lortu dutenek.

3.2 Eibarko Adopziozko Seme edo Alaba titulua emango ahal izango zaie eibartar izan gabe goian adierazitako merezimenduak eta inguruabarrak betetzen dituzten pertsoneri.

3.3. Bai Seme edo Alaba Kuttunaren titulua, bai Adopziozko Seme edo Alabarena, hil ostean ere eman ahal izango dira, aipatutako merezimenduak izan zituzten pertsonen omenez.

4. artikulua

4.1. *Txopitea eta Pakea* goraipamena emango zaie kultur, zientzia, arte, kirol, ekonomia, lanbide edo gizarte arloetan merezimendu bereziak izan, aparteko zerbitzuak edo balio handiko lanak egin, edo Eibarko hiriarri ekarpen bereziak egin dizkioten pertsoneri.

4.2. Eibarko armarrria emango zaie kargua utzi duten zinegotzi guztiei, herritarrak ordezkatzuz erakundearen egindako lanaren aitortza sinboliko gisa.

4.3. Grabadore Bola ehun urtetik gorako pertsona guztiei emango zaie beren lan-ibilbide osoaren aitortpen gisa, eta baita egindako lan, esfortzu eta dedikazioagatik edo, erakundearen kasuan, beren efemerideak edo urteurrenak betetzeagatik herriaren aitortpena merezi duten pertsona eta erakunde guztiei. Goraipamen hori emango zaie, halaber, kasuan kasuko gaien ezagutza handia izateagatik, Eibarko Udalak hitzaldiak ematea eskatu eta hitzaldiok doan ematen dituzten pertsoneri.

5 artikulua



Seme edo Alaba Kuttunaren eta Adopziozko Seme edo Alabaren tituluak emateko izapidea ondorengo artikuluetan ezartzen da.

6. artikulua

Espedientea hasi ahal izango da:

- a) Bozeramaleen Batzordearen erabakiz —Udalbatzaren legezko kide kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko duen boto haztatuaren bidez—, Alkatetza-Udalburutzari proposatuko zaio dagokion titulua ematea.
- b) gutxienez Eibarko biztanleriaren % 5ek eskatuta.

7. artikulua

Bozeramale Batzordearen hasierako erabakian edo herritarren idazkietan, zehazki adieraziko da zein diren espedientearen xede izan behar duten egitate edo inguruabarrak, zer pertsonak jasoko duen saria, eta zer ohore- edo goraipamen-mota eman nahi zaion.

8. artikulua

Espedientearen instruktorea Udaleko idazkaria izango da.

9. artikulua

Espedientearen instruktoreak beharrezkotzat jotzen dituen eginbideak burutuko ditu merezimenduak ahalik eta modu argi, objektibo eta osoenean ikertzeko. Horretarako, mota guztietako txostenak, datuak edo aurrekariak eman ditzaketen pertsonen edo erakundeetako ordezkariak deklarazioa hartu ahal izango die, eta espedientearen behar bezalako objektibotasunez, zehaztasunez eta xehetasunez jasota geratuko dira, izan hasierako proposamenaren aurkakoak izan aldekoak.



Instrukzioan, gainera, espedientea osatze aldera, komenigarritzat jotzen diren pertsona fisiko, juridiko, korporazio eta era guztietako erakundeen iritzia edo aholkularitza eskatu ahal izango da, hala, espedienteak judizio-elementu objektiboak eduki ditzan dagokion proposamena ahalik eta egiazkoena eta objektiboena izateko.

10. artikulua

Titulua emateko proposamenaren aurretik, entzunaldi publikoaren izapidea egingo da, iragarkia argitaratuz udaletxeko ediktu-oholean eta Udalaren webgunean, 15 egunez. Epe horretan, nahi dutenek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak edo eragozpenak aurkeztu ahal izango dituzte. Aurkeztuz gero, instrukzioaz arduratzen den pertsonak espedientean sartuko ditu eta, hala badagokio, titulua emateko proposamena egingo du.

11. artikulua

Bozeramaleen Batzordeak, Udalbatzaren legezko kide kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko duen boto haztatuaren bidez, titulua emateko proposamena eramango du Udalbatzara.

12. artikulua

Txopitea eta Pakea eta Grabadore Bola goraipamenak Alkatetzaren ebazpenez emango dira, Bozeramaleen Batzarrak proposatu ondoren, Udalbatzaren legezko kide kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko duen boto haztatuaren bidez. Ez da beteko Araudi honen 6tik 11ra bitarteko artikuluetan aurreikusitako tramitazioa.

13. artikulua



13.1. Emandako ohoreak edo goraipamenak adierazten dituzten ikurrak edo agiriak Alkatetza-Udalburutza betetzen duen pertsonak emango dizkie saritutako pertsoneri edo entitateei omenaldi-ekitaldi publikoan, edo Udalak erabakia hartzean xedatzen duen moduan; ikurrek edo agiriek kasuaren arabera xedatzen diren idazkunak izango dituzte. Entrega-ekitaldian udal talde bozeramale guztiek hartuko dute parte.

13.2. Seme edo Alaba Kuttun edo Adopziozko Seme edo Alaba tituluaren ezaugarriak hauexek izango dira:

- Kotoi organikoazko papera, % 100 OCC, jatorri jasangarrikoa eta 350 gramoko artile-kolorekoa.
- Neurriak: 24 x 32 cm.
- Orri-marjina: bertako artista prestigiodunek berariaz egindako inguru eta apaindurarekin; inskribatu beharreko testua eta hautatutako kolorea ere artista berberak egingo dute.
- Erakundearen izena: *Eibarko Udala / Ayuntamiento de Eibar* , armari ofizialarekin (koloretan).
- Hartzailearen izena: saritutako pertsonaren izen osoa.
- Goraipamenaren arrazoia: *Eibarko Seme edo Alaba Kuttuna / Eibarko Adopziozko Semea edo Alaba Hija/Hijo Predilecta/o de Eibar o Hija/Hijo Adoptiva/o de Eibar*.
- Lekua eta data.

- Sinadura: diplomaren azken zatian Alkatetza-Udalburutza kargua duenaren eskuzko sinadura egon beharko da, dagokion zigiluarekin.

- Dagokion idazkuna jarriko da.

13.3. Oteizaren *Txopitea eta Pakea* obraren ezaugarriak —jatorrizko obraren erreplika, 200 pieza zenbakitu eta sinatuen edizio bati dagokiona— hauexek dira:



- Brontzez egina dago eta oinazpiko bat du Markinako marmol beltzekoa.
- Neurriak 90 x 90,86 (altuera) mm dira.
- Oinazpikoaren neurriak 90 x 90 x 19 (altuera) mm dira.
- Piezaren pisua guztira 0,7 kg-koa da.
- Dagokion idazkuna jarriko da.

13.4. Herriaren Armariaren ezaugarriak hauexek dira: Papar-hegaleko intsignia damaskinatua Herriaren armari ofizialarekin eta *Eibarko hiri guziz eredugarria* idazkunarekin.

13.5. Grabadore Bolaren sari ofizial edo goraipamenaren ezaugarriak hauexek dira:

- Eibarko grabadore bola tradizionalaren erreplika txiki bat da brontzez egina; oinazpikoa marmolezkoa da, marfil krema kolorekoa.
- Neurriak dira: 90 x 90 x 80 (altueran).
- Oinazpikoaren neurriak dira: 90 x 90 x 80 (altueran).
- Piezaren pisua guztira 1 kg-koa da.
- Edizioa mugatua da.
- Dagokion idazkuna jarriko da.

14. artikulua. Ohorezko goraipamenen erregistro-liburua

14.1. Eibarko Udalaren ohorezko goraipamenen Erregistro Liburu bat sortuko da, Idazkaritza Nagusiari atxikia, zeinak administrazio-izaera izango duen eta artikulua honen xedapenen arabera arautuko den.

14.2 Erregistro-Liburu horretan zehatz-mehatz jasoko dira Araudi honetan biltzen diren ohorezko goraipamenetako bat jaso duten entitate eta pertsonen izenak eta inguruabarrak, saria jasotzeko merituen zerrenda, eman den eguna, eta, hala



bada kasua, saritutako pertsonaren heriotza-eguna edo entitateen desegite-data, bai eta ohorea baliogabetzea ere, hala balegokio.

14.3. Erregistro-Liburu hau Alkatezak eta Udalaren Idazkaritza Nagusiak, biak batera, izenpetutako eginbide batekin irekiko da; gainera, Idazkaritza arduratuko da liburuaren orrialde guztiak zenbakitzeaz, eta zenbakitze hori jasota geratu beharko da irekiera-eginbidean. Erregistro-Liburu honek Eibarko Udalak eman ditzakeen ohorezko goraiamen adina atal izango ditu, eta atal bakoitzean inskribatuko dira, emate-hurrenkera kronologikoaren arabera, kasuan kasuko titulua, ohorea edo goraiamena dutenen izenak eta aurretik adierazitako gainerako inguruabarrak.

14.4 Inskripzioak ofizioz egingo dira beti.

14.5 Udalaren Erregistro-Liburuak publikoa da. Haren idazpenak kontsultatzeko, administrazio-prozedura erkidea arautzen duen erregelamenduan xedatutakoari jarraituko zaio.

14.6. Erregistroaren idazpenen ziurtagiriak egin ahalko dira interesdunen pertsonen edo entitateen eskariz.

14.7 Ohoreen eta Goraiamenen Udal Erregistro-Liburuak sari horiek eman eta baliogabetu direla egiaztatuko du.

15. artikulua

Ezin izango da ohore edo goraiamenik eman, baldin eta saritutako pertsonak Administrazioan goi-karguak betetzen badituzte eta Udala haiekiko hierarkiako mendekotasun-erlazioan badago, edo eginkizun edo zerbitzu bidez loturaren bat badu haiekin, arrazoi horiek dirauten bitartean.

Halaber, ezingo zaie ohore edo goraiamenik eman Udalbatzarkideei, beren karguan diharduten bitartean.

16. artikulua

Udal Osoko bilkurak Araudi honen xede diren goraiamenak kendu ahal izango dizkie —noiz emanak izan diren ere— beren egintza edo omisioekin muturreko



neurri hori hartzera bultzatzen duen falta egin edo duintasunik eza erakutsi dutenei. Artean bizirik dauden pertsona fisikoak badira, aurretiazko entzunaldiko izapidea beteko da. Pertsona edo erakunde juridikoak badira, haien legezordezkarien bidez egingo da entzunaldiko izapidea.

17. artikulua

Ez zaie pertsona fisikoen izenik jarriko Eibarko kale, plaza eta bideei, ezta espazio publikoei ere, hala nola eraikinei, aretoei, kirol-kantxei eta antzekoei.

Aldiz, mugimendu feministarekin lotutako izendapen generikoak lehenetsiko dira.

Xedapen indargabetzailea

Indarrik gabe geratzen da ohoreak eta goraipamenak emateko 1962ko apirilaren 25eko udal araudia, bai eta araudi honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapena

Udal Araudi hau Udalbatzaren Osoko Bilkurak behin betiko onartu ondoren jarriko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitako moduan, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeran.

